MAZOKA, MARRAZKI AZOKA

ZUZENDARITZA NAGUSIA / DIRECCIÓN:
MARTA C. DEHESA
WWW.COLADEPERRO.COM

ZUZENDARITZA TEKNIKOA, DISEINU ETA EKOIZPENA
DIRECCIÓN TÉCNICA, DISEÑO GRÁFICO Y PRODUCCIÓN:
ANUSKA GRAPHIC - ANUSKA ARBILDI

KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA / COMUNICACIÓN Y COORDINACIÓN:
MARÍA PASTOR CORRALES

WEB DISEINUA / DISEÑO WEB:
LA DEBACLE - ANA LIDIA COMPAÑÓN ÷ MARIA PASTOR CORRALES



# 2021EKO MAZOKA MARRAZKI AZOKAREN VII. EDIZIOAN HAUTATUTAKO EGILEEN KATALOGOA

# CATÁLOGO DE AUTORAS Y AUTORES SELECCIONADOS EN LA VII EDICIÓN DE MAZOKA, MERCADO DE DIBUJO E ILUSTRACIÓN, 2021

MAZOKA
MARRAZKI AZOKA
MERCADO DE DIBUJO E ILUSTRACIÓN
AZAROA/DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
ARABA

WWW.MAZOKA.ORG

LAGUNTZAREKIN / PATROCINADO POR:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Udala · VITORIA GASTEIZ green capital · araba álava foru aldundia diputación foral · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Kultura eta Hizkuntza Politika Saila / Departamento de Cultura y Política Lingüística · LABORAL kutxa · MAZOKA


## KATALOGOKO KREDITUAK / CRÉDITOS DEL CATÁLOGO

ARGITARATZAILEA / EDITA:
COLADEPERRO.COM
LABORAL KUTXA

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA / COORDINACIÓN DE LA EDICIÓN:
MARTA C. DEHESA
MARÍA PASTOR CORRALES

PORTADAREN ILUSTRAZIOA-MAZOKA 2021 KARTELA / ILUSTRACIÓN DE PORTADA-CARTEL MAZOKA 2021:
MAITE GURRUTXAGA

KONTZEPTUA ETA DISEINU GRAFIKOA / CONCEPTO Y DISEÑO GRÁFICO:
ANUSKA GRAPHIC - ANUSKA ARBILDI

TESTUAK / TEXTOS:
HITZAURREA - PRÓLOGO: MARTA C. DEHESA
MAZOKALARIENA / DE LAS Y LOS MAZOKALARIS

BARNE-ILUSTRAZIOAK / ILUSTRACIONES DEL INTERIOR:
MAZOKALARIENA / DE LAS Y LOS MAZOKALARIS

ITZULPENA / TRADUCCIÓN:
BELÉN PIKABEA

INPRIMATEGI / IMPRIME:
LEITZARAN GRAFIKAK, S.L.

L.G. / D.L.: LG G 00783-2021

IMPRIMAKIA ANDOAINEN, 2021EKO AZAROAN / IMPRESO EN ANDOAIN - GIPUZKOA, EN NOVIEMBRE DE 2021


@2021_COLADEPERRO
ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA.
EDOZEIN ERABILERATARAKO JARRI HARREMANETAN HOLA@MAZOKA.ORG HELBIDEAREKIN.
RESERVADOS TODOS LOS DERECHOS. PARA CUALQUIER USO CONTACTAR CON HOLA@MAZOKA.ORG

MAZOKA

MARRAZKI AZOKA
MERCADO DE DIBUJO E ILUSTRACIÓN

ABENDUA/DICIEMBRE
VITORIA-GASTEIZ
2021

# 2021EKO MAZOKA MARRAZKI AZOKAREN VII. EDIZIOAN HAUTATUTAKO EGILEEN KATALOGOA

# CATÁLOGO DE AUTORAS Y AUTORES SELECCIONADOS EN LA VII EDICIÓN DE MAZOKA, MERCADO DE DIBUJO E ILUSTRACIÓN, 2021

WWW.MAZOKA.ORG

**MAZOKA Marrazki Azoka** hasi zenetik, hautatutako 40 ilustratzaileen lana gizarteari ezagutaraztea da haren helburu nagusia, merezi duten aintzatespena emateko.

Zazpi urteotan metatutako esperientziari esker, Mazoka erreferentzia bihurtu da, sektoreari laguntza eta aholkularitza emanez hura agerian jartzeko eta profesionalizatzeko tresna eta baliabideen bidez.

Azokaren tranpolin-funtzioak konfiantza eta segurtasuna ematen die hasten ari direnei, eta horren adibide dugu ikasleentzako MAZOKA - Laboral Kutxa bekaren arrakasta; aurten, bost partaide hainbat eskola eta unibertsitatetatik datoz, hazten ari diren balio gisa.

2021eko abenduan, www.mazoka.org plataformaren bidez, eta katalogo honetako mazokalariek zuzenean artatuta, obra ilustratuen mota eta estilo guztietako jatorrizkoak, produktuak eta kopiak eskura daitezke.

Ekitaldiaren osagarri gisa, erakusketa bat izango da, baita marrazkigintzari, musikari, dantzari, literaturari eta beste diziplina artistiko batzuei buruzko tailer, ikuskizun eta aurkezpenen egitarau paralelo bat ere.

Gasteizen izango dira, eta herritar guztiei zuzenduta daude.

Desde el comienzo del **Mercado de Dibujo e Ilustración MAZOKA**, el principal objetivo es acercar a la ciudadanía el trabajo de los y las 40 ilustradoras seleccionadas para darles el reconocimiento que se merecen. Con la experiencia recogida en estos 7 años, Mazoka se ha convertido en un referente, ayudando y asesorando al sector con herramientas y recursos que favorecen su visibilización y profesionalización.

La función de trampolín del festival da confianza y seguridad a quienes comienzan, el éxito de la Beca MAZOKA - Laboral Kutxa para estudiantes es un ejemplo de ello; este año, 5 participantes provienen de diferentes escuelas y universidades como valores emergentes.

Durante el mes de diciembre de 2021 a través de la plataforma www.mazoka.org, y atendidos directamente por las y los mazokalaris de éste catálogo, se pueden adquirir todo tipo y estilo de originales, productos y reproducciones de obras ilustradas.

El evento se complementa con una exposición y todo un programa paralelo de talleres, espectáculos y presentaciones que se celebran en Vitoria-Gasteiz -en torno al dibujo y otras disciplinas artísticas como la música, la danza y la literatura- para el disfrute de toda la ciudadanía.



## RUGIDO
## RUBÉN MEGIDO SÁNCHEZ

OVIEDO

WWW.ETSY.COM/SHOP/RUGIDOART

(1976, Oviedo). Aisiaren, publizitatearen eta argitaletxeen sektoreko ilustratzailea eta diseinatzaile grafikoa.

Descubierta enpresaren sortzailea eta sormen-zuzendaria ere bada. Descubierta argitaletxe txikietarako eta idazle independenteentzako azal ilustratuen diseinuan espezializatuta dago.

Publizitaterako Grafismoko goi-mailako teknikaria da Oviedoko Arte Eskolaren eskutik (1999), eta, bere trebakuntzaren osagarri gisa, tailerrak eta masterclass-ak eman ditu AcademiaC10 (Madril) eskolan eta Galería Roja (Sevilla) galerian, besteak beste. 2013tik, pintura tradizionaleko trebakuntza jasotzen du Toño Velasco eta Luis Azón margolari asturiarren eskutik.

“(Espazioko) 7 bekatu kapitalak” serieak 7 koadro ditu, eta kristautasunaren 7 bekatu kapitalak berrinterpretatzen ditu, zientzia-fikzioaren bidez.

(1976, Oviedo). Ilustrador y diseñador gráfico del sector lúdico, publicitario y editorial.

También es fundador y director creativo de Descubierta, empresa especializada en el diseño de portadas ilustradas para pequeñas editoriales y escritores independientes.

Técnico superior en Gráfica Publicitaria por la Escuela de Arte de Oviedo (1999), ha complementado su formación mediante talleres y masterclass en centros como la Academia C10 (Madrid) o la Galería Roja (Sevilla). Desde 2013, recibe formación en pintura tradicional con los pintores asturianos Toño Velasco y Luis Azón.

La serie “Los 7 Pecados capitales (del espacio)” consiste en 7 cuadros con una reinterpretación de los 7 pecados capitales del cristianismo, a través de una temática de ciencia-ficción.



## PATRICIA NAGASHIRO ILUSTRACIÓN

## PATRICIA NAGASHIRO VACA

VITORIA-GASTEIZ WWW.PATRICIANAGASHIRO.COM/TIENDA

(1972, Beni – Bolivia). Ilustratzaile zientifikoa eta argitaletxeetarako ilustratzailea.

Diseinu Grafikoa ikasi zuen (1993), eta, bere trebakuntzaren osagarri gisa, hainbat tailer egin zituen; besteak beste, haurrentzako ipuinen eta ilustrazioaren narratibari buruzkoak eta marrazkian eta pinturan esperimentatzeko teknikei buruzkoak. Haren tresna gogokoena akuarela da. Gero, bi graduondoko egin zituen: Sorkuntza-berrikuntzako metodoak (1999) eta Ilustrazio zientifikoa (2018), UPV/EHUn.

Publizitatearen eta argitaletxeen esparruetan eta aldizkari zientifikoetan argitaratu du, infografiak egin ditu, erakusketa kolektiboak egin ditu, etab. Horrez gain, sari bat jaso du Festival Internacional de Imagen de Natureza (FIIN) Portugal 2020 jaialdian, besteak beste.

Haren lana pertsonalagoa da; teknika mistoak erabiliz (analogikoak eta digitalak), natura, zientzia eta artea uztartzen ditu pertsonaia onirikoak proiektatzeko, (haren jaioterria den Amazoniako) zenbait indigenak egiten duten bezala, emakumezko babesle gisa irudikatuta (hala nola naturaren zaintzaileak edo babesleak).

(1972, Beni – Bolivia). Ilustradora científica y editorial.

Estudió Diseño Gráfico (1993), y amplió su preparación con talleres sobre narrativa del cuento e ilustración infantil, técnicas de experimentación en dibujo y pintura, siendo la acuarela su herramienta favorita. Posteriormente, completó su carrera con dos postgrados: Métodos de innovación creadora (1999) e Ilustración científica en la UPV (2018).

Ha publicado en los ámbitos publicitario, editorial, infografías, revistas científicas, exposiciones colectivas, etc. y ha sido premiada, entre otros, en el Festival Internacional de Imagen de Natureza (FIIN) Portugal 2020.

Su trabajo más personal, con técnicas mixtas -analógicas y digitales- une naturaleza, ciencia y arte para proyectar personajes oníricos, de manera similar a como lo hacen ciertos indígenas (de su Amazonía natal), personificados en protectoras femeninas como guardianas o protectoras de la naturaleza.




## LAPATRY CRUZ
## PATRICIA CRUZ PARRILLA

VALDEPEÑAS, CIUDAD REAL

WWW.LAPATRYCRUZ.BIGCARTEL.COM

(1985, Valdepeñas-Ciudad Real). Barne Diseinua ikasi zuen Pedro Almodóvar Diseinuko Goi Eskolan (2011, Ciudad Real), baita Diseinu Grafikoa, Publizitate Ekoizpena eta Arte Digitalak ere, CICEn (2018-2020, Madril).

2012tik, hainbat herrialdetako erakusketetan parte hartu du; besteak beste, Espainian (Ciudad Real, Sevilla, Valentzia, Madril, Bartzelona...), Erresuma Batuan, Ekuadorren, Brasilen eta, laster, Mexikon. Azalgile gisa, Ondina, Barrett eta La Navaja Suiza argitaletxeetarako egin du lan, besteak beste.

Haren lana ilustrazioan eta collage mistoan (digitala eta analogikoa konbinatuta) oinarrituta dago, eta haren pieza guztiek eskuz moztu eta itsatsitako paper birziklatuak dituzte. Vintage elementuak erabiltzen ditu; esaterako, argazki zaharrak, testura higatuak eta giza irudiarekin bat datozen naturako elementuak.

Besteekiko harremanetan, munduan dugun tokian eta gizartean dugun lekuan eta egiten dugun erreibindikazioan jartzen du arreta haren proiektuak.

(1985, Valdepeñas-Ciudad Real). Estudió Diseño de Interiores en ESD “Pedro Almodóvar” 2011, Ciudad Real y Diseño Gráfico; Producción Publicitaria y Artes Digitales en CICE (2018-2020), Madrid.

Desde 2012, ha participado en exposiciones en España (Ciudad Real, Sevilla, Valencia, Madrid, Barcelona...) y países como UK, Ecuador, Brasil y próximamente México. Como portadista ha trabajado para editoriales como Ondina, Barrett y La Navaja Suiza.

Su trabajo se basa en la ilustración y el collage mixto (combinación de digital y analógico) y todas sus piezas contienen papeles reciclados recortados y pegados a mano. Utiliza elementos vintage como fotografías antiguas, texturas gastadas y elementos de la naturaleza que encajan con la figura humana.

Su proyecto se centra en las relaciones con los demás, nuestro lugar en el mundo y nuestro posicionamiento y reivindicación dentro de la sociedad.



## PATCAS
### PATRICIA CASARRUBIAS CARRERAS

MADRID

WWW.PATCASILLUSTRATION.ETSY.COM

(1993, Madril). Ilustratzaile digitala eta concept artist. Haren obrak estilo errealista du; fantasia da nagusi, eta ukitu ilun eta misteriotsuak ditu, eta, batzuetan, baita beldurrezkoak ere.

Marrazketa eta ilustrazio digital eta tradizionaleko gradu bat egin zuen Arteneo eskolan (2015). Bertan ezagutu zuen arte digitala, eta hartaz maitemindu zen, gehien erabili zuen pintura-teknika izateraino.

Freelance ilustratzaile gisa, hainbat proiektutan egin du lan; besteak beste, liburu eta diskoetarako azalak, eta mahai-jokoetarako ilustrazioak.

Bere proiektu pertsonalak aurkeztuko ditu; esaterako, haren Umbra artbook-a (fantasiazko ilustrazio koloretsuz betetako arte-liburu bat, batzuetan testu txikiz lagunduta), tarot-kartak eta ilustrazioen irudiak.

(1993, Madrid). Ilustradora digital y concept artist, cuya obra mantiene un estilo realista, dominado por la fantasía, con toques oscuros y misteriosos y en ocasiones, de terror.

Cursó un grado de Dibujo e Ilustración Digital y Tradicional en la escuela Arteneo (2015), donde tuvo su primer contacto con el arte digital, que la enamoró y acabó siendo su técnica de pintura más usada.

Como ilustradora freelance ha trabajado en diversos proyectos, entre ellos portadas para libros y discos e ilustraciones para juegos de mesa.

Presenta sus proyectos personales, como su artbook Umbra -un libro de arte lleno de ilustraciones de fantasía a todo color, a veces acompañadas de pequeños textos-,  barajas de tarot y láminas.



## PATOSSA
## PATRICIA BARRACHINA RUÍZ

BARCELONA

WWW.PATOSSASHOP.ETSY.COM

(1979, Valentzia). Arte Ederrak (2002) eta Arte Dramatikoa (2004) ikasi zituen.

Animazioak egiten ditu stop motion erabilita, eta prentsa eta publizitaterako eta argitaletxeetarako ilustratzen du, jolasaren eta sinbologiaren bidez, objektuak eta beste material batzuk erabilita; diseinu grafikoko lanak ere egiten ditu. Antzezpen-ekitaldi edo -ikuskizunetarako sorkuntza bisualeko zuzeneko performance-etan ere esku hartzen du. Hainbat erakusketa kolektibotan hartu du parte, eta bira eszenikoak egin ditu Estatu osoan barrena.

Patossak unibertso birtualak lantzen ditu, material, kolore eta objektuei argazkiak atera eta haiek digitalki editatuta. Pieza guztiak eskuz sortzen dira, objektu horiekin dantza egin edo elkarrizketa bat izan ondoren, eraldaketekin, erretorika bisualarekin eta sinbologiarekin jolastuz, esentzialistak eta apaingarri gehiegirik gabeak izan ohi diren esparruetan.

(1979, València). Estudió Bellas Artes (2002) y Arte Dramático (2004).

Realiza animaciones en stop motion e ilustra para prensa, publicidad, editorial, a través del juego y la simbología con objetos y otros materiales, además de trabajos de diseño gráfico. También interviene en performances de creación visual en directo para eventos o espectáculos escénicos. Ha participado en diferentes exposiciones colectivas y ha realizado giras escénicas por todo el estado.

Patossa trabaja universos visuales con materiales, colores y objetos que fotografía y edita digitalmente. Todas las piezas pasan por un proceso de creación manual a partir de un baile o conversación con dichos objetos, jugando con las transformaciones, la retórica visual y la simbología, en marcos que usualmente son esencialistas y sin excesiva ornamentación.



LA BANDA

## NO ES LA PINTA LO QUE PINTA

## ÓSCAR VILLALOBOS

MADRID

WWW.NOESLAPINTA.COM

(1984, Santa Cruz Tenerifekoa). Sormen-zuzendari exekutiboa bokazioz, eta ilustratzailea eta marrazkilaria afizioz. Publizitatean eta Harreman Publikoetan lizentziaduna CEU San Pablo Unibertsitatearen eskutik (2007).

Sari ugari jaso ditu publizitate-arloan; besteak beste, Solist Awards saria 2020an, agentzia sortzaileena izateagatik. Nazioarteko agentzia ospetsuetan egin du lan; besteak beste, Bassat Ogilvy eta Wunderman.

“No es la pinta lo que pinta” proiektua itxura benetan itsusia baina zapore zoragarria duen plater bat prestatu ondoren sortu da. Izenak, hitzak, definizioak, gertakariak, pertsonaia ospetsuak... berrinterpretatzen dituen kontzeptu gisa sortu da. Haiek guztiak modu ilustratuan eta hitzez hitz ulertuta eta interpretatuta, paradoxikoak eta oso absurdoak izan daitezke, irribarrea ateratzeraino.

(1984, Santa Cruz de Tenerife). Director Creativo Ejecutivo de vocación; e ilustrador y dibujante por afición. Licenciado en Publicidad y Relaciones Públicas por la Universidad CEU San Pablo (2007).

Los reconocimientos en el campo publicitario son numerosos, como el Sortlist Awards a la agencia más creativa en 2020. Ha trabajado en prestigiosas agencias internacionales como Bassat y Ogilvy o Wunderman entre otras.

El proyecto “No es la pinta lo que pinta” surge tras cocinar un plato con una pinta horrible pero con un sabor espectacular. Nace como un concepto que reinterpreta nomenclaturas, palabras, definiciones, hechos, celebridades... Y que entendidas e interpretadas de una manera ilustrada y literal pueden ser paradójicas e inteligentemente absurdas con el fin de arrancar sonrisas.




## OLALLA RUIZ
## OLALLA ICÍAR RUIZ-AYÚCAR VÁZQUEZ

GRANADA

WWW.OLALLARUIZART.ETSY.COM

(1976, Toledo). Arte Ederrak (1999) ikasi zuen, eta, ikasketak amaitutakoan, diseinu grafikora eta webguneetara bideratu zuen bere ibilbidea.

Europako kultura-zentro nagusietako batzuekin Jordanian bizi eta lan egin ondoren, ilustrazioan aurkitu du artearen eta diseinuaren arteko oreka. Besteak beste, hauetarako egin ditu ilustrazioak: El País, Instituto Cervantes, Goethe Institut, AECID, Revista Líbero, Cinemanía, Instituto Andaluz de la Mujer eta Amnistía Internacional.

Teknika digitalak erabiltzen ditu, eta, haien bidez, beste teknika plastikoago batzuk birsortu nahi ditu, hala nola arkatza eta akuarela. Haren lana figuratiboa eta narratiboa da; giza natura eta pertsonaien erabilera dira istorioak kontatzeko haren baliabide gustukoena.

Galeria proiektu bizia da, eta 2017an jarri zuen martxan. Erretratu horien estiloa batez ere pintura erromanikoan dago oinarrituta; esaterako, aurpegiko gorria.

(1976, Toledo). Estudió Bellas Artes (1999) enfocando su carrera, tras finalizar los estudios, al diseño gráfico y web.

Tras vivir y trabajar en Jordania con algunos de los principales centros culturales europeos, encuentra en la ilustración el equilibrio entre el arte y el diseño. Ha ilustrado para El País, Instituto Cervantes, Goethe Institut, AECID, Revista Líbero, Cinemanía, el Instituto Andaluz de la Mujer y Amnistía Internacional, entre otros.

Utiliza técnicas digitales con las que busca recrear otras más plásticas, como el lápiz y la acuarela. Su trabajo es figurativo y narrativo, la naturaleza humana y el uso de personajes son su recurso favorito para contar historias.

La galería es un proyecto vivo iniciado en 2017. El estilo de estos retratos está muy inspirado en la pintura románica, como por ejemplo los coloretes del rostro.



## NOELIA DE ALDA
## NOELIA DE ALDA MANCILLA

LA LÍNEA, CÁDIZ

WWW.NOELIADEALDA.COM/TIENDA

(1986, La Línea-Cádiz). Arte Ederrak eta Eszenografia ikasi zuen (2010) eta arte-zuzendari eta atrezzista gisa hasi zen lanean 2011n. 2017an, ilustrazioa ikasi zuen, zenbait argitaletxetan argitaratzen hasi zen, eta Amnistía Internacional eta beste erakunde batzuekin eta era guztietako gizarte-mugimenduekin lanean hasi zen, lanbidea bere pasioetako batekin uztartuz: aktibismoa. Hainbat erakusketa indibidual eta kolektibotan parte hartu du, eta, irakasle gisa, marrazketako, zianotipiako eta zigilugintzako tailerrak eman ditu.

Askotariko teknikak erabiltzen ditu, nola digitalak hala tradizionalak (esaterako, gouachea eta grafikoa), baita hain ohikoak ez diren beste batzuk ere (esaterako, zianotipia), eta forma fineko eta kolore leuneko unibertso bati bizia ematen dio, haren mundu-ikuskera ilustratzeko, baita beste alderdi batzuen laztasuna ere (esaterako, animalia-bizitzaren industrializazioa eta genero-estereotipoak).

(1986, La Línea-Cádiz). Estudia BBAA (2010) y Escenografía (2011) y comienza a trabajar como directora de arte y atrezzista en 2011. En 2017 estudia el máster Ilustración y comienza a publicar en diversas editoriales y colabora con organizaciones como Amnistía Internacional y movimientos sociales de distinta índole, aunando así su profesión con otra de sus pasiones: el activismo. Ha participado en varias exposiciones individuales y colectivas y, como docente, ha impartido talleres de dibujo, cianotipia o carvado de sellos.

Recurre a distintas técnicas, desde las digitales a las tradicionales como el gouache y el gráfico, y a otras menos frecuentes como la cianotipia para dar vida a un universo de formas delicadas y colores suaves con los que ilustra su visión del mundo y la aspereza de algunos aspectos como la industrialización de la vida animal o los estereotipos de género.



# PRINT IS NOT DEAD BY NATALIA ROS
## NATALIA ALFONSO ROS

VITORIA-GASTEIZ÷BARCELONA WWW.NATALIAROS.ES

(1989 Vitoria-Gasteiz). Eskuzko estanpazioan espezializatutako ilustratzailea. Arte Ederretan lizentziatu zen (2013), eta, gero, Diseinu Grafikoko graduondoko bat (2014) eta ikus-entzunezko diseinuko, motion graphics-eko 3D diseinuko beste bat (2015) egin zituen. Aldi berean, grabatu kalkografikoan trebatu zen Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan, baita lettering-ean eta beste teknika grafiko batzuetan ere.

Rosek erakusketa kolektibo eta indibidualetan parte hartu zuen, baita azoka eta merkatu askotan ere. Gaur egun, bere produktu ilustratu propioa lantzen du batez ere, beretzat nahiz hirugarrenentzat, block printing teknika erabilita.

Haren ilustrazio gehienak naturan inspiratuta daude, batez ere itsasoan. Eskuz ekoizten du dena: ilustrazioak linoleozko matrizeetan zizelkatzen ditu, eta, gero, tintaztatu eta estanpatu egiten ditu, konposizio berdingabeak edo oso serie mugatukoak sortuz.

(1989, Vitoria-Gasteiz). Ilustradora especializada en estampación manual, licenciada en Bellas Artes (2013) con Postgrados en Diseño Gráfico (2014) y Diseño Audiovisual, Motion Graphics y Diseño 3d (2015), mientras paralelamente se formaba en grabado calcográfico en la escuela de Artes y Oficios de Vitoria. lettering y otras técnicas gráficas.

Ros ha participado tanto en exposiciones colectivas como en individuales y en numerosas ferias y mercados. Actualmente, trabaja principalmente su propio producto ilustrado con la técnica del block printing, para sí misma y terceros.

La mayoría de sus ilustraciones están inspiradas en la naturaleza, sobre todo en el mundo marino. Su proceso de producción es 100% manual: talla las ilustraciones en matrices de linóleo, que luego entinta y estampa creando composiciones únicas o que forman series muy limitadas.



## NADER SHARAF
## NADER SHARAF MARTÍNEZ

MADRID

WWW.NADERSHARAF.ETSY.COM

(1980, Madril). Hamar urte baino gehiago daramatza ilustratzaile profesional gisa lanean. Haren ibilbidean zehar, hainbat bezerok aipatu dute, eta haren lanak erakutsi eta argitaratu dituzte, bai Estatuan, bai nazioartean; besteak beste, Penguin Random House-k, Santillanak, Iberiak, El Malpensantek, Movistarrek, Havasek eta Magma Books-ek. 2012an, Pancho Cossío Lehiaketa Nazionaleko lehenengo ilustrazio-saria egokitu zitzaion.

Sharafek hainbat eskolatan egin du lan; besteak beste, Bartzelonako Elisavan, Madrilgo ArteDiezen eta Madrilgo Marrazki eta Ilustrazioko ABC Museoan.

Bere lanaren adibide ugari ditu, bai serie gisa (izendatzaile komuna kontzeptua dutela), bai hainbat formatutako banakako irudi gisa.

(1980, Madrid). Ilustrador profesional, desde hace más de una década. Durante su trayectoria, ha sido reseñado, exhibido y publicado tanto a nivel nacional como internacional de la mano de clientes como Penguin Random House, Santillana, Iberia, El Malpensante, Movistar, Havas o Magma Books. En 2012 fue galardonado con el Primer Premio de Ilustración del Certamen Nacional Pancho Cossío.

Sharaf ha impartido formación en escuelas como Elisava de Barcelona, ArteDiez de Madrid o el Museo ABC de Dibujo e Ilustración de Madrid.

Ofrece una gama amplia de su trabajo tanto en forma de series con un concepto denominador común, como en imágenes individuales de diversos formatos.



## MIREN ASIAIN LORA
MIREN ASIAIN LORA

**PAMPLONA, NAVARRA** — **WWW.MIRENASIAINLORA.ETSY.COM**

(1988, Iruñea). Arte Ederretan lizentziaduna da (UPV/EHU, 2011). Ikasketen azken urtea Buenos Aireseko Gizarte Museo Argentinarraren Unibertsitatean egin zuen.

Hainbat herrialdetan egindako erakusketetan parte hartu du, hala nola Italian, Espainian, Argentinan, Mexikon, Txinan, Japonian eta New Yorken; eta album ilustratuaren Etxepare saria (2012) jaso zuen, baita “Iberoamérica Ilustra” (2015) ilustrazio-katalogoa ere. 2017an, 2018an eta 2019an, bere lana Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Azokan erakusteko hautatu zuten; 2018an, Castelo Brancoko (Portugal) Ilustrarte Ilustrazioaren Nazioarteko Bienalean parte hartzeko; eta, 2019an, “New Yorkeko Ilustratzaileen Elkartea-ren” (SOI) “Illustrator’s 61” eta d’Pictus-en 100 Outstanding Picturebooks erakusketetan jartzeko.

2020an, haren *Un millón de ostras en lo alto de la montaña* liburuari esker, literaturako Ilustrazioaren Euskadi saria lortu zuen, beste batzuen artean.

Venezuelako Liburuaren Bankuak jatorrizko liburu onenaren 2021eko saria eman dio, eta “New Yorkeko Ilustratzaileen Elkartearen” The Original Art 2021 erakusketan parte hartzeko hautatu da haren lana.

(1988, Pamplona). Se licenció en Bellas Artes por la UPV-EHU (2011), cursando su último año en la Universidad del Museo Social Argentino de Buenos Aires.

Ha participado en exposiciones en Italia, España, Argentina, México, China, Japón y Nueva York y galardonada con el Premio Etxepare de Álbum Ilustrado (2012) y el catálogo de ilustración “Iberoamérica Ilustra” (2015). En 2017, 2018 y 2019 fue seleccionada para exponer en la feria del Libro Infantil y Juvenil de Bolonia, en 2018 para la Bienal Internacional “Ilustrarte en Castelo Branco, Portugal, y en 2019 en las exposiciones “Illustrator’s 61” de la “Sociedad de Ilustradores de Nueva York” (SOI) y 100 Outstanding Picturebooks de d'Pictus.

En el 2020 gracias a su libro "Un millón de ostras en lo alto de la montaña", recibió el premio Euskadi de Ilustración en Literatura, entre otros muchos.

Ha obtenido el premio Mejor Libro Original 2021 del Banco del Libro de Venezuela y su trabajo ha sido seleccionado en la exposición The Original Art 2021 de la “Sociedad de Ilustradores de Nueva York”.



## MARTA MELERO
## MARTA MELERO FRAGO

PAMPLONA, NAVARRA — WWW.MARTAMELEROFRAGO.ETSY.COM

(1997, Borja - Zaragoza) Telekomunikazioetako ingeniaria lanbidez, eta artezalea beharrak bultzatuta.

Haren ikuspegiak inpresionismoaren, erromantizismoaren eta beste mugimendu batzuen eragin handia jaso du, eta, nahiz eta artistikoki ia erabat bere burua prestatu duen, Estatuko ilustratzaile eta artista ezagunek emandako hainbat ikastaro eta tailerretan parte hartu du. Erakusketa askotan eta hainbat arte-azokatan parte hartu du.

Ikastea da haren pasio handiena, eta beti ahalegintzen da esperimentatzen eta berritzen, bai teknikan, bai forman, bere errealitatea ahalik eta modurik pertsonalenean irudikatu nahian etengabe.

Gustuko du akuarela, “ezin delako aurretik ikusi, neketsua delako, eta, batzuetan, kontrolaezina ere bai, eta pieza bati bizitza ematen dio”.

Batez ere natura etereo eta adieraziezinenean jartzen du arreta haren obrak, baita giza sentimenduen konplexutasunean ere. Ur-eremu zabalak eta kolore urdina dira haren ezaugarrietako batzuk.

(1997, Borja - Zaragoza). Ingeniera de Telecomunicaciones por profesión y amante del arte por necesidad.

Su mirada se ha visto fuertemente influenciada por movimientos como el Impresionismo o el Romanticismo y, aunque su formación artística es prácticamente autodidacta, ha realizado cursos y talleres de la mano de conocid@s ilustrador@s y artistas del panorama nacional. Ha participado en exposiciones y varias ferias de arte.

Aprender es su máxima pasión y siempre trata de experimentar e innovar, tanto en técnica como en forma, en una búsqueda constante por la representación de su propia realidad de la manera más personal posible.

Muestra predilección por la acuarela, pues contiene “ese carácter imprevisible, azaroso y muchas veces incontrolable que dota de vida propia a una pieza”.

Su obra se centra sobre todo en la naturaleza más etérea e inefable, así como en la complejidad de los sentimientos humanos. Las aguadas amplias y el color azul son algunas de sus señas de identidad.



## MAR FERRERO
## MARÍA DEL MAR FERRERO BARRIO

COLLADO MEDIANO, MADRID

WWW.MARFERRERO.BIGCARTEL.COM

(1968, Madril). Arte Ederretan lizentziaduna da (1993), eta, bereziki, haurrentzako literaturan egiten du lan. Hona hemen ilustratu dituen liburuetako batzuk: “La mejor sopa del mundo” (idazlea: Susana Isern), “Oveja de madera” (idazlea: Roberto Mezquita) eta “Con mis Palabras” (idazlea: Cristina Tébar). Hauek ere idatzi ditu: “Lo mejor del mundo” (argitaletxea: Pearson), “Lo que no vió Caperucita Roja”, “La receta de Hans y Greta” eta “Marrón” (argitaletxea: Edelvives).

Album ilustratuaren “CCI Isabel Niño” “Lo que no vió Caperucita Roja” lanagatik. Lisboako “Ilustrarte 2014” jaialdian parte hartzeko hautatua. Ohorezko aipamena: “III Catálogo Iberoamericano de Ilustración, fundación SM”. “Highlights High Five 2014 Cover of the Year”. Ohorezko aipamena: “Portfolio Showcase, SCBWI winter conference 2019”

Ferrerok hauek dakartza: bere tailerrean eskuz eta tinta bakarrarekin edo birekin egindako serigrafiak.

(1968, Madrid). Licenciada en Bellas Artes (1993) trabaja especialmente en literatura infantil. Algunos libros que ha ilustrado son “La mejor sopa del mundo” de Susana Isern, “Oveja de madera” de Roberto Mezquita, “Con mis Palabras” de Cristina Tébar y escritos por ella: “Lo mejor del mundo”, Pearson “Lo que no vió Caperucita Roja” “La receta de Hans y Greta” Y “Marrón” en Edelvives.

“CCI Isabel Niño” de Álbum ilustrado por “Lo que no vió Caperucita Roja”. Seleccionada “Ilustrarte 2014” Lisboa. Mención de Honor “III Catálogo Iberoamericano de Ilustración, fundación SM”. “Highlights High Five 2014 Cover of the Year”. Mención de Honor en el “Portfolio Showcase, SCBWI winter conference 2019”.

Ferrero presenta un proyecto principalmente elaborado con serigrafías artesanales hechas en su taller, con una o dos tintas, a las que a veces añade otro color a mano.



## CELESTE WILD STUDIO
## MARÍA CELESTE RAMÍREZ OLIVARES

ANDOAIN, GIPUZKOA
WWW.CELESTEWILDESTUDIO.ETSY.COM

(1970, Argentina). Diziplina anitzeko artista da. Córdobako (Argentina) Dr. Figueroa Arte Ederren Goi Eskolan trebatu zen, eta zenbait pintura-, marrazketa- eta grabatu-ikastaro egin zituen (1986-1990), baita Frankfurteko Volkshochschuleko marrazketa-, pintura- eta argazkilaritza-tailerrak ere (1991-1995).

Ikastaroak eta workshop-ak eman zituen haurrentzat artearen bidez gizarteratzeko proiektuan, Frankfurt am Maineko Lehrer Kooperative-k antolatutako Internationale Kinderhort-en, baita gazte eta helduei ere Altako Kultur Zentroan (Córdoba). Euskal Herrira itzuli ondoren, 2001etik, hainbat ikastarotan hartu du parte, eta, gaur egun, grabatuko, collage botanikoko eta marrazketa digitaleko bere tailerra kudeatzen du.

Haren obraren hizkuntza narratiboak landa-inguruneetako emakume eta neskatoen, animalien eta landareen emozioak adierazten ditu.

(1970, Argentina). Artista multidisciplinar formada en la Escuela Superior de Bellas Artes Dr. Figueroa Alcorta en Córdoba, Argentina así como en diversos cursos de pintura, dibujo y grabado (1986-1990) y en los talleres de la Volkshochschule de Frankfurt de dibujo, pintura y fotografía (1991-1995)

Impartió cursos y workshops a niñ@s en el proyecto de integración social a través del arte en el Internationale Kinderhort de la Lehrer Kooperative de Frankfurt am Main; y a jóvenes y adultos en el Centro Cultural de Alta, Córdoba. De regreso en el País Vasco desde 2001 ha participado en diversos cursos y actualmente gestiona su propio taller de grabado, collage botánico y dibujo digital.

El lenguaje narrativo de su obra expresa las emociones de las mujeres y niñas con entornos naturales, animales y plantas.



## LIBERTAD BALLESTER
## LIBERTAD REBOLLO BALLESTER

VALENCIA | WWW.LIBERTADBALLESTER.BIGCARTEL.COM

(1990, Valentzia). Marrazkilaria eta margolaria da. Arte Ederrak ikasi zuen Valentziako Fakultate Politeknikoan (2015), baita marrazketan espezializatutako Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko master bat (2016), ilustrazioko goi-mailako gradu bat ere (2018) Granadan, muralismo- eta ilustrazio-lanak egiten zituen bitartean.

Sorkuntza grafikoko Injuve beka jaso zuen (2014), eta bigarren saria CALLE Lavapiés 2021 hiri-arteko jaialdian, eta erakusketak egin ditu Parisko Fluctuar arte-galerian eta Valentziako Babakamo jaialdian.

Argitaletxeetarako ilustrazioak, kartelak eta horma-irudiak egin ditu etengabe: 2021ean Valentzian, Madrilen, Badajozen eta Cádizen margotu du.

(1990, Valencia). Dibujante y pintora, estudió Bellas Artes en la facultad politécnica de Valencia (2015), un máster de Profesorado de Secundaria especializado en Dibujo (2016) y un grado superior de Ilustración en Granada (2018) mientras realizaba trabajos de muralismo e ilustración.

Beneficiaria de la beca Injuve para la creación gráfica (2014), galardonada con el segundo premio en el festival de arte urbano CALLE Lavapiés 2021 y ha expuesto en la galería de arte urbano Fluctuar de París y en el Festival Babakamo de Valencia.

Realiza habitualmente trabajos de ilustración editorial, cartelería y, en muro: en el 2021 ha pintado en Valencia, Madrid, Badajoz y Cádiz.



## LAUFER
## LAURA FERNÁNDEZ ARQUISOLA

**BARCELONA** **WWW.LAUFERILUSTRACION.ETSY.COM**

(1986, Valladolid). Arte Ederrak ikasi zuen Salamancako Unibertsitatean (2009), eta haur eta gazteentzako argitalpenetan (2010) eta sorkuntza-ilustrazioan (2014) espezializatu da Escola EINA eskolan.

Testu-liburuak, ipuinak, haurrentzako aldizkariak, jostailuak, publizitate - kanpainak eta aplikazio interaktiboak ilustratzen ditu. Hona hemen argitaratu dituen liburuetako batzuk: “Las deliciosas aventuras de los hermanos Roca”, “Ciudades arriba y abajo”, “La tierra se Calienta”, “Lavaba diez calcetines y otros poemas del mundo”, “O Pirata Ataripo”, “Vívete”, “El castell del temps i les reliquies”, “Y de repente se fue la luz… de la luna”.

Domestika 2017 beka bat eta Carnet Jove Connecta’t al Disseny 2016 beka jaso zituen; Arroz Negro lehiaketako bigarren saria egokitu zitzaion; Tragaluz Editores 2015 nazioarteko lehiaketan hautatu zuten; Smile&Learn 2014 ipuin interaktiboen lehiaketaren III. edizioa irabazi zuen; eta bigarren tokian geratu zen ilustrazio-kategorian lanari esker, 2013.

(1986, Valladolid). Estudió Bellas Artes en la Universidad de Salamanca (2009), especializándose en Publicaciones Infantiles y Juveniles (2010) e Ilustración Creativa (2014) en la Escola EINA.

Trabaja ilustrando libros de texto, cuentos, revistas infantiles, juguetes, campañas publicitarias y apps interactivas. Algunos libros publicados: “Las deliciosas aventuras de los hermanos Roca” “Ciudades arriba y abajo” “La tierra se Calienta” “Lavaba diez calcetines y otros poemas del mundo” “O Pirata Ataripo” “Vívete” “El castell del temps i les reliquies” “Y de repente se fue la luz… de la luna”.

Ganadora de una Beca Domestika 2017 y de la “Beca Carnet Jove Connecta’t al Disseny 2016”; 2º premio Arroz Negro; seleccionada en el concurso internacional de Tragaluz Editores 2015; ganadora del concurso de cuentos interactivos III edición Smile&Learn 2014 y 2º puesto en la categoría de ilustración Premios Argaya, 2013.



# JULIA LASA
## JULIA LASA GOIKOETXEA

HONDARRIBIA, GIPUZKOA — WWW.JULIALASA.ETSY.COM

(1996, Hondarribia). Ilustrazioan espezializatutako diseinatzaile grafiko autonomoa.

Sorkuntzako eta Diseinuko gradua egin zuen UPV/EHUn (Diseinu Grafikoko eta Ilustrazioko espezialitatea, 2018), eta erasmus urtea Université Bordeaux Montaigne unibertsitatean egin zuen Diseinuko eta Arte Plastikoetako graduan (2017) eta Diseinuko eta Ilustrazioko masterra ere egin zuen Valentziako Unibertsitate Politeknikoan (2019).

Proiektuak “ez-perfektuen artean garatzen ditu, baina helburu zuzen eta oso pertsonal batekin”. Frontera Surf Sorp, Tidore, Jon Garmendia Surfbards eta beste marka batzuekin egin du lan, eta erakusketak egin ditu hainbat tokitan; besteak beste, Posidonia Estudio (Donostia), Kulluxka Studio Store (Hondarribia), Victoria Center (Irun) eta Ttopara (Hondarribia).

Poesia- eta ilustrazio-liburu bat argitaratu du “C’alma”, eta beste bi liburu ilustratu ditu: “Se movía como una estatua” (Anatole Nirekin batera) eta “Lo” nobela grafikoa (idazlea: Elena Ávila).

(1996, Hondarribia). Diseñadora gráfica freelance especializada en Ilustración.

Grado en Creación y Diseño en la UPV/EHU especialidad en Diseño Gráfico e Ilustración (2018), realizó Erasmus en el Grado de Diseño y Artes plásticas en la Université Bordeaux Montaigne (2017) y Máster en diseño e ilustración en la Universidad Politécnica de Valencia (2019).

Desarrolla sus proyectos “entre líneas imperfectas pero con un objetivo directo y muy personal”. Ha colaborado con marcas como Frontera Surf Sorp, Tidore, Jon Garmendia Surfbards y realizado exposiciones en Posidonia Estudio (Donostia), Kulluxka Studio Store (Hondarribia), Victoria Center (Irun) y Ttopara (Hondarribia).

Ha autoeditado un libro de poesía e ilustración titulado “C’alma”, ilustrado el libro “Se movía como una estatua” con Anatole Ni y la novela gráfica “lo” escrito por Elena Ávila.



## JONE TABERNA

## JONE TABERNA ESTOMBA

ARTAZA, NAVARRA

WWW.JONETABERNA.COM

(1986, Lesaka - Nafarroa) Arte Ederrak ikasten hasi zen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Mexikon amaitu zituen (2010). Ilustratzen ekin zion ibilbideari, baina artisautzarekin egin zuen topo. Hala, Bitxigintza Artistikoko goi-mailako gradua osatu zuen Donostian (2018), eta ilustrazioarekin lotutako bitxigintza-proiektu bat sortu zuen.

Loreak Mendian, SKFK, TalkHunderLight eta beste marka batzuekin aritu da elkarlanean.

Azken urteetan, marrazkira itzuli da (haren hizkuntza naturala izaki), bai komunikazio grafikorako, bai hainbat euskarritan aplikatuta: zeramika, ehunak, enkargu bidezko ilustrazioak, horma-irudiak eta fanzine-en autoedizioa.

(1986, Lesaka - Navarra). Comenzó Bellas Artes en la Universidad de Barcelona y terminó la carrera en México (2010). Inicia su andadura ilustrando, pero se topa con la artesanía y se acaba licenciando en el Grado Superior de Joyería Artística en Donosti (2018) y crea un proyecto de joyería totalmente conectado con la ilustración.

Ha trabajado en distintas colaboraciones para marcas como Loreak Mendian, SKFK, y TalkHunderLight.

En los últimos años vuelve al dibujo, (su lenguaje natural) tanto para comunicación gráfica como aplicándolo a diferentes soportes (cerámica, textil..), ilustraciones por encargo, murales o la autoedición de fanzines.




KISSING YOU A TRAVÉS DE LA PANTALLA

## IVILA
## ISABEL VILA CABALLERO

BLANES, GIRONA

WWW.IVILA.BIGCARTEL.COM

(1983, Blanes-Girona). Komikigintza ikasi zuen Joso eskolan (2003) eta, gero, ilustrazioa Escola de Disseny Llotja diseinu-eskolan, Bartzelonan (2008).

Arretaz pentsatzen du zer lan egin, eta naturaltasunez askatzen du paperaren gainean. Egunerokotasunari, intimitateari eta emozioei buruz marrazten du beti. Erotismotik dramara, eta tartean dagoen guztia.

Teknika mistoak akatsak egiteko eta sortze-prozesuan konpontzeko modu ezin hobea eskaintzen dio. Horrela, ilustrazioa konpondu beharreko arazo bat da, eta unea, akatsak eta haiek konpontzeko sentikortasuna jasotzen ditu.

Teknika esperimentalei buruzko tailerrak ematen ditu, eta erakusketa eta fanzine askotan hartu du parte; edukia sortu du Erika Lusten XConfessions-erako, eta ilustrazio-lanak egin ditu “Cuentos Para el Andén”, “The Morran Book Project” eta beste argitalpen batzuetarako.

Haren lana Londresen, Porton, Calabriako La Guarimba Nazioarteko Film Jaialdian eta beste hainbat tokitan ikusi da.

(1983, Blanes-Girona). Estudió cómic en la Escuela Joso (2003) y luego ilustración en la Escola de Disseny Llotja, en Barcelona (2008).

Piensa su trabajo con detenimiento y lo suelta con espontaneidad sobre el papel. Sus temas siempre giran sobre lo cotidiano, la intimidad y las emociones. Del erotismo al drama y lo que cabe en medio.

La técnica mixta le da el medio ideal para cometer errores y tener que arreglarlos en el proceso de creación. Así la ilustración es un problema a solucionar donde queda registrado el momento, los errores y la sensibilidad para resolverlos.

Imparte talleres de técnicas experimentales y ha colaborado en numerosas exposiciones y fanzines, ha creado contenido visual para XConfessions de Erika Lust y ha trabajado la ilustración editorial para publicaciones como Cuentos Para el Andén o The Morran Book Project entre otros.

Su trabajo se ha visto en lugares como Londres, Oporto o el International Film Festival, La Guarimba en Calabria.




## IÑAKI LANDA
## IÑAKI LANDA FUENTES

DURANGO, BIZKAIA

WWW.INAKILANDA.BIGCARTEL.COM/PRODUCTS


(1981, Portugalete-Bizkaia). Diseinu Grafikoa ikasi zuen (2003), eta Arte Ederretan lizentziaduna da (UPV/EHU) (2009).

15 urte baino gehiago daramatza hainbat proiekturen diseinuan eta komunikazioan lanean, hala nola papereko aldizkariak eta kulturako webguneak. Azken urteetan, Bilboko Consonni argitaletxean aritu da.

Lan horrez gain, erakusketak, proiektu pertsonalak (esaterako, KLOF fanzine-a, 2012-2016) eta ilustrazio-enkarguak egin ditu. Azken horiek gero eta ugariagoak izan dira, eta, 2020an, ilustraziora eta diseinu grafikora mugatzea erabaki du.

Bere proiektu pertsonalenetan, Landak eskuzko prozesuak (hala nola akuarela) eta teknika digitalak lantzen ditu, gizarte-gaiez eta hausnarketa-prozesuez (salaketa, kronika, etab.) hitz egiteko.

(1981, Portugalete-Bizkaia). Formado en Diseño Gráfico (2003) y licenciado en Bellas Artes (UPV-EHU) (2009).

Lleva más de 15 años trabajando de manera continuada en el diseño y la comunicación de diferentes proyectos como revistas en papel o webs culturales. En los últimos años desde la editorial bilbaína Consonni.

De forma paralela, ha intercalado esta actividad laboral con exposiciones, proyectos personales como el fanzine KLOF (2012-2016) y encargos de ilustración que han ido aumentando su volumen, hasta que en 2020 decide dedicarse exclusivamente a la ilustración y al diseño gráfico.

Landa en sus proyectos más personales trabaja, desde procesos manuales como la acuarela a la técnica digital, temáticas sociales y procesos de reflexión, como denuncia y crónica.




## INMA HORTAS

## INMA LÓPEZ HORTAS

MADRID ÷ LUGO

WWW.INLOHO.COM/SHOP

(1984, Lugo). Ilustratzaile honek sentikortasun eta karga kontzeptual handiko esparru bektorial batean egiten du lan, eta hamar urte baino gehiagoko esperientzia du diseinu grafikoaren arloan.

Bolumen indartsuak, xehetasunen inguruko arreta handiena eta konposizio zaindua dira haren ezaugarri nagusiak. Kolore biziak erabiltzen ditu lanetan; alaiak, ausartak eta finak dira, baina baita arretatsuak eta apetatsuak ere. Gehien gustatzen zaizkion istorioek aniztasuna, giza emozioak, emakumeen indarra, norberaren onarpena, natura, eguneroko bizitzako gaiak, etab. dituzte hizpide; hau da, gizarte-erantzukizunerako eta intimitaterako sen handia duten istorioak ditu gustuko.

Bere lanetan, naturaren eta gorputzen edertasuna eta giza harremanak irudikatzen ditu; “big-girl” ederrak; “I can”, LGB-Tiq+ guztiak agerian jartzea eta antzeko mezuak; buru-osasunaren zainketa; sentipen abstraktuen adierazpena; eta zientziak irabaziko duelako itxaropena.

(1984, Lugo). Ilustradora que trabaja en el campo vectorial con una fuerte sensibilidad y carga conceptual, con más de diez años de experiencia en el ámbito del diseño gráfico.

Volúmenes poderosos, máxima atención al detalle y una composición cuidada son sus señas de identidad. Su obra se caracteriza por el uso vibrante del color; es alegre, atrevida y delicada, pero también meticulosa y caprichosa. Prefiere historias basadas en la diversidad, las emociones humanas, la fuerza de las mujeres, la auto aceptación, la naturaleza y los asuntos de la vida cotidiana… historias con gran sentido de responsabilidad social e intimidad.

En sus obras recrea la belleza de la naturaleza, de los cuerpos y las relaciones humanas; bellas “big-girls”, mensajes como “I can” o la visibilización LGB-Tiq+, el cuidado de la salud mental, la expresión de sensaciones abstractas y la esperanza de que la ciencia gane.




## INGEBORG
## INGE CONDE MORENO

SESTAO, BIZKAIA

WWW.INGE.BIGCARTEL.COM

(Barakaldo, 1988). Abesbatzako zuzendaria da, eta, horrez gain, BilboArte tailer grafikoan gauzatzen du bere lanik pertsonalena: lehiaketa eta deialdi artistikoetara aurkezten da, eta diseinu grafikoko enkarguak egiten ditu diseinatzaile autonomo gisa.

Lanean, Ingeborgen euskarri nagusiak ilustrazioa, diseinu grafikoa eta musika-konposizioa dira. Horma-irudiak dira haren pasioa eta emozioekin eta norberaren bizipenekin erlazionatutako mezuak adierazteko modua. Hainbat beka irabazi ditu (EITB, Kaleartean, BilboArte...), eta bitarteko digitalak erabiltzen ditu lanean.

Horma-irudien bidez, mezuak zabaltzen ditu, eta adimen emozionalarekin, sentimenduekin, naturarekin eta psikologiarekin zerikusia duten gaiak lantzen.

(Barakaldo, 1988). Directora de Coro que compagina su oficio con el desarrollo de su obra más personal en BilboArte (taller de gráfica), con la presentación a concursos y convocatorias artísticas y con encargos de diseño gráfico como diseñadora freelance.

Ingeborg tiene como pilares fundamentales la ilustración, el diseño gráfico y la composición musical a la hora de desarrollar su obra. Los pósters son su pasión y su forma de expresar mensajes relacionados con las emociones y las vivencias propias. Ganadora de numerosas becas (EITB, Kaleartean, BilboArte..) desarrolla su obra desde mediante medios digitales.

Los pósters son soportes que utiliza para lanzar mensajes y temas que tienen que ver con la inteligencia emocional, sentimientos, la naturaleza y la psicología.



## IBAN ILLARRAMENDI
## IBAN ILLARRAMENDI ECHABE

ZARAUTZ, GIPUZKOA

WWW.IBAN.BIGCARTEL.COM

(1973, Zarautz). Ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa. Publizitateko Diseinu Grafikoa ikasi zuen (2011), eta hainbat ilustrazio-tailerretan trebatu zen egile ezagunekin; esaterako, Javier Zabala, Isidro Ferrer, Elena Odriozola, Katsumi Komagata, Jesús Cisneros, Icinori, Ignasi Blanch eta Guridi.

Argitaletxeen eta publizitatearen munduan egiten du lan batez ere. Euskarri ugaritarako egiten ditu ilustrazioak; esaterako, kartelak, skate-oholak, erakusleihoak, diskoen azalak, arropa eta osagarriak. Gainera, ilustrazio esperimentaleko tailerrak ematen ditu haurrentzat, eta hainbat erakusketa indibidual eta kolektibo egin ditu.

Illarramendiren sorkuntza-unibertsoa naturako, itsasoko eta euskal sustraiekin erlazionatutako elementuek osatzen dute. Orbanetik eta lerrotik abiatzen da beti, eta gama kromatiko murriztu bat erabiltzea gustatzen zaio. Dioenez, haren ilustrazioak "geometrikoak eta delikatuak" dira, eta teknika mistoak, analogikoak eta digitalak erabiliz egiten dira; lettering-ak ere badu tokia.

(1973, Zarautz). Ilustrador y diseñador gráfico, formado en Diseño Gráfico Publicitario (2011) y en diferentes talleres de ilustración con autor@s como Javier Zabala, Isidro Ferrer, Elena Odriozola, Katsumi Komagata, Jesús Cisneros, Icinori, Ignasi Blanch y Guridi.

Trabaja principalmente en el ámbito editorial y publicitario. Realiza ilustraciones para diferentes soportes como carteles, tablas de skate, escaparates, portadas de discos, ropa y accesorios. Además, imparte talleres de ilustración experimental para niñ@s y ha hecho distintas exposiciones individuales y colectivas.

El universo creativo de Illarramendi se compone de elementos de la naturaleza, el mar y sus raíces vascas. Parte siempre de la mancha y la línea y le gusta utilizar una gama cromática reducida. Sus ilustraciones las define como "geométricas y delicadas" están realizadas con técnicas mixtas tanto analógicas como digitales e incluso el lettering tiene su espacio.



## ESTELA CREATIVA
## ESTELA LABAJO DUQUE

VALLADOLID

WWW.ESTELACREATIVA.ETSY.COM

(1982, Valladolid). Ilustratzailea, artisaua, diseinatzaile grafikoa eta amaierako fitxategien prestatzailea.

Ilustrazioko goi-mailako gradua du (2002), eta Itzalen Antzerkiko Tekniketan (2020), hezkuntzara zuzendutako Itzalen Antzerkian (2021) eta Mokuhanga grabatuan eta estanpazioan (2019) trebatuta dago. Autodidakta pop up teknike-tan, kirigamian, origamian, produktuen diseinuan, packaging-ean eta eskuzko estanpazioan. 2018tik, antzerki-konpainientzat egiten du lan, paperezko txotxongiloak eta asmakuntzak diseinatzen eta prestatzen, eszenografia eta itzalen antzerkia ilustratzen. Narrazio- eta musika-bideoak ere egiten ditu.

Esperientzia zabala du inprimatzean; hori dela eta, aholkularitza grafikoa ematen du artista, sortzaile eta diseinatzaileentzako edizio berezi txikiak egiteko. Errealitateen arteko zubiak eraikitzen ditu, eta ilustrazioen, bideoen edo objektuen bidez laguntzen du haiek zeharkatzen.

Paperezko hegaztien “paketeak” sortzen ditu. Haiei esker, oraindik gure inguruan dagoen bizitza basatiaren memoria berreskura dezakegu, gure ongizatea eta oreka harenaren menpe baitago.

(1982, Valladolid). Ilustradora, artesana, diseñadora gráfica y artefinalista.

Grado Superior en Ilustración (2002) y formación en Técnicas de Teatro de Sombras (2020), Teatro de Sombras orientado a la educación (2021) y Grabado y estampación Mokuhanga, (2019). Autodidacta en técnicas pop up, kirigami, origami, diseño de producto, packaging y estampación manual.

Desde 2018 trabaja para compañías de teatro realizando diseño y realización de títeres e ingenios de papel, ilustración aplicada a escenografía y teatro de sombras. También realiza videos narrativos y musicales. Amplia experiencia en impresión por lo que ofrece asesoría gráfica para realizar pequeñas ediciones singulares para artistas, creativos y diseñadores.

Construye puentes entre realidades que ayuda a cruzar en forma de ilustraciones, vídeos u objetos. Crea “packs” de aves de papel que nos ayudan a recuperar la memoria de la vida salvaje que aún cohabita con nosotros y de cuya prosperidad y equilibrio depende el nuestro también.




## MORELI
## ELIZABETH DÍAZ MORA

MÁLAGA

WWW.MORELI.ME/TIENDA

(1987, Málaga). Arte Ederretan lizentziaduna da (2014), eta ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko gisa egin du lan hainbat sektoretan: erreprografia, webguneen diseinua, nortasun grafikoa eta korporatiboa, aplikazioak eta packaging-a.

Proiektu pertsonalago honek galgoa adoptatu zuenekoa du abiapuntu, eta arraza horren inguruko zenbait estanpazio biltzen ditu. Animaliak behin eta berriro erabiltzen ditu obretan. Katu, txakur eta beste animalia batzuen ilustrazioen bidez (nola enkarguz eginak hala bere kabuz), gizakien eta maskoten arteko maitasun-harremana defendatzen du, eta hitza eta botoa ematen die gizartean eta beren familian.

Pieza ilustratuetan, arkatzez egindako marrazkiaren metodo tradizionala erabiltzen du, baina kolore-ukituak digitalki aplikatuz.

(1987, Málaga). Licenciada en Bellas Artes (2014) ha trabajado como ilustradora y diseñadora gráfica en diferentes sectores: reprografía, diseño web, identidad gráfica y corporativa, apps y packaging.

Este proyecto más personal tiene como punto de partida la adopción de su galga y una serie de estampaciones sobre esta raza, siendo los animales un punto de retorno constante en su obra. Por encargo o a través de las ilustraciones de gatos, perros y otros animales, que ha desarrollado, defiende la relación de amor entre humanos y mascotas, dándoles voz y voto en la sociedad y familia de la que forman parte.

En sus piezas ilustradas combina el método tradicional del dibujo a lápiz, aplicando los toques de color de forma digital.



## DANIEL DÍEZ

### DANIEL DÍEZ JIMÉNEZ

MADRID

WWW.DANIELDIEZ.BIGCARTEL.COM

(1993, Madril). Ilustrazioko ikasketak egin zituen Madrilgo Artediez eskolan (2015), eta Diseinuan graduatu zen Unibertsitate Konplutentsearen (2020) eskutik. Marrazkiak eskaintzen dizkion alderdi artistikoaz eta adierazpen -ahalmenaz gozatzen du, baita diseinuaren komunikazio- eta gizarte-aukeraz ere, eta ehunak, horma-irudiak, kartelak eta musika-bandetarako artea landu ditu.

Proiektatzeko bide gisa edo pentsatzeko modu material gisa erabili izan du beti marrazkia; hortaz, denborak aurrera egin ahala, haren lan pertsonalak prozesuetan eta formen sinplifikazioan jarri du arreta, irudiekin jolastuz, idazlan bateko karaktereak balira bezala. Izan ere, haren lana komikiaren berezko narrazioei edo hieroglifikoetara edo idazketa-sistema sinbolikoetara hurbiltzen diren konposizioei buruzko erreferentziez beteta dago.

Euskarri grafikoa erabiltzen du istorioak kontatzeko, egoerak irudikatzeko, joan-etorriez eta inguruneko aldaketez hitz egiteko, edo narrazioekin esperimentatzeko.

(1993, Madrid). Formado en Ilustración en la Escuela Artediez de Madrid (2015) y graduado en Diseño por la Universidad Complutense (2020). Disfruta de lo artístico y la capacidad expresiva que le aporta el dibujo y también de la posibilidad comunicadora y social del diseño, trabajando desde diseños textiles, murales o carteles y arte para bandas de música.

Siempre ha utilizado el dibujo para proyectar o como una manera material de pensar, por lo que con el tiempo su trabajo personal se ha volcado en los procesos y la simplificación de formas jugando con las imágenes como caracteres de una escritura. De hecho, su obra está llena de referencias a narrativas propias del cómic o composiciones que se acercan al jeroglífico o a sistemas de escritura simbólicos.

Utiliza el soporte gráfico para contar historias, representar situaciones, hablar del tránsito y los cambios de medio o experimentar con las narrativas.



## CRISTINA CLEMENTE ILUSTRACIÓN
## CRISTINA CLEMENTE CALPE

VALENCIA

WWW.CRISTINACLEMENTE.BIGCARTEL.COM

(1993, Valentzia) Ilustratzaile profesionala da. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Arte Ederren Fakultatean graduatu zen (2015), eta narrazio grafikoan jartzen du arreta lanean.

Ilustratzaile autonomo gisa, testu-liburuak eta azalak ilustratu ditu, erakusketa kolektiboetan parte hartu du, enkargu pertsonalizatuak diseinatu ditu, eta horma-pinturako proiektu artistikoak ere egin ditu.

Ilustrazioetan, iraganeko esperientzietan ikasitakoa modu koherentean konbinatzen saiatzen da. Teknika eta estilo ugari aztertu ditu; eguneroko ekintza gisa ikusten du marraztea, irudien bidez istorioak kontatzeko asmoak bultzatuta, ezinegon artistikoei eta komunikaziokoei erantzuteko.

(1993, Valencia). Ilustradora profesional graduada en la Facultad de Bellas Artes de la Universidad Politécnica de Valencia (2015), enfoca su trabajo a la narrativa gráfica.

Como ilustradora freelance, ha ilustrado libros de texto, ilustrado portadas, ha participado en exposiciones colectivas, diseñado encargos personalizados y también ha realizado proyectos artísticos de pintura mural.

En sus ilustraciones intenta combinar de manera coherente lo aprendido en experiencias pasadas. Habiendo explorado distintas técnicas y estilos, entiende el acto de dibujar como una práctica diaria, motivada por la intención de narrar historias en imágenes para poder satisfacer sus inquietudes artísticas y de comunicación.




## CAROLINA MATTOS
## CAROLINA MATTOS COPPOLA

VITORIA-GASTEIZ WWW.CAROLINAMATTOSSHOP.BIGCARTEL.COM

(1988, Argentina). Ilustratzailea eta eszenografoa da. Eszenografian eta Arropan lizentziaduna da, Arte Dramatikoko Metropoli Eskolan ikasi zuen (Buenos Aires, Argentina. 2015), eta gift-en brodatzaile eta animatzaile autodidakta.

Gaur egun, bideoklip eta film laburren arte-zuzendari gisa dihardu, eta argitaletxeetarako eta publizitaterako ilustrazio-lanak egiten ditu noizbehinka kanpaina, blog eta abarretarako, baita enkargu pertsonalizatuak ere. Taldeko eta banakako erakusketak egin ditu Buenos Airesen, Bartzelonan eta Gasteizen.

Bere estilo pertsonala garatzeko, testura, kolore, teknika eta modu ez-tradizionalak erabiltzen ditu inguruan dugun mundua irudikatzeko.

(1988, Argentina). Ilustradora y escenógrafa, con Licenciatura en Escenografía y Vestuario en la Escuela Metropolitana de Arte Dramático de Buenos Aires Argentina, (2015) y bordadora y animadora de gifs autodidacta.

Actualmente trabaja en la dirección de arte de videoclips y cortometrajes. Realiza trabajos puntuales de ilustración editorial o publicitaria para campañas, blogs, etc. y encargos personalizados. Ha realizado exposiciones grupales e individuales en Buenos Aires, Barcelona y Vitoria-Gasteiz.

Desarrolla su estilo personal explorando a través de texturas, colores y técnicas, maneras no tradicionales de representar el mundo que nos rodea.



## CARTMENILUSTRA
## CARMEN MORALES FERNÁNDEZ

MADRID

WWW.CARTMENILUSTRA.ETSY.COM

(1997, Cáceres). Arte Ederrak ikasi zituen Salamancan (2019), baita argitaletxeetarako eta publizitaterako ilustrazioko master bat ere Madrilen (2020).

Haren estiloak haurrentzako ilustrazioaren naturaltasunaren eragina du: pastel-koloreak eta kolore biziak, arkatzen trazatua simulatzen duten testuak, eta oso garrantzitsua dena: loreak, loreak eta lore gehiago. Natura da haren inspirazio-iturri nagusia.

Jolas bat balitz bezala ikusten du ilustrazio-prozesua. Koloreekin, trazatuarekin, konposizioarekin eta testurarekin esperimentatzen du. Erabiltzen duen teknika nagusia ilustrazio digitala da, narrazio bisual delikatuarekin eta estilo atsegin eta goxoarekin.

(1997, Cáceres). Estudió Bellas Artes en Salamanca (2019) y un Máster en Ilustración Editorial y Publicitaria en Madrid (2020).

Su estilo está influenciado por la espontaneidad de la ilustración infantil: colores pasteles y vibrantes, texturas que simulan el trazado de lápices, y muy importante: flores, flores y más flores. La naturaleza es su principal fuente de inspiración.

Concibe el proceso de ilustración como un juego. Experimenta con los colores, el trazado, la composición y la textura. La técnica principal que utiliza es la ilustración digital, con una delicada narrativa visual y un estilo amable y cálido.



## BRENDA NOVAS
### BRENDA NOVAS OTERO

PONTEVEDRA

WWW.BRENDANOVAS.BIGCARTEL.COM

(1981, Vigo). Diseinatzailea eta ilustratzailea. Arte Ederrak ikasi zituen Vigoko eta Salamancako unibertsitateetan (2007). Geroago, diseinu grafikoan espezializatu zen Madrilgo IED izenekoan (2011).

Diseinu-sailetan lan egin ondoren, Mexikora joan zen bizitzera, eta, bertan, markak ehun-eredu tradizional mexikarrekin diseinatzen hasi zen. Urte horiek eragin handia izan zuten harengan, bai kolore eta estanpatuei dagokienez, bai imajinario surrealista propioa garatzeari dagokionez.

Galiziara itzulitakoan, haurtzaroko naturaz inguratuta, lore-mundu bitxien proiektuari forma ematea erabaki zuen. Haren lanak Art Nouveau mugimendu artistikoaren eta Arts & Crafts estanpatuen eragina du; bereziki, haien konposizioen mugimendu arinarena. Loreen ilustrazioek natura hil klasikoak eta eguneroko dekorazio-elementuak narrazio surrealistarekin nahastearen emaitza aztertzen dute. Amets egitera eramaten zaituzten eta fantasiak berritzen dituzten marrazkiak dira.

(1981, Vigo). Diseñadora e ilustradora, estudió Bellas Artes en las Universidades de Vigo y Salamanca (2007). Más tarde se especializó en diseño gráfico en el IED de Madrid (2011).

Tras trabajar en departamentos de diseño, se instala México donde compagina su interés por el diseño de marcas con los patrones textiles tradicionales mexicanos. Esos años le impactaron tanto a nivel de color y estampados, como en el desarrollo de un imaginario surrealista propio.

De regreso a Galicia, rodeada de la naturaleza de su infancia decide dar forma al proyecto de mundos florales extravagantes. Su trabajo está influenciado por el movimiento artístico Art Nouveau y los estampados de Arts & Crafts, sobre todo en lo fluido de sus composiciones. Sus ilustraciones de flores exploran la mezcla de naturalezas muertas clásicas y elementos cotidianos de decoración con una narrativa surrealista. Son dibujos que hacen soñar y renuevan fantasías.



# MEMBRILLA
## BELÉN CATALANO
## JAVIER NARDUCCI

SALCEDO, ÁLAVA

WWW.MEMBRILLA.ETSY.COM

(1988, Buenos Aires). Belén Catalano Gregoroff, artista plastikoa da. Ikusizko Arteetan graduatu zen Buenos Airesen (2010), Arte Zaintzako masterra egin zuen (2013), eta Otsailaren 3ko Unibertsitate Nazionalaren Arte Museoko Hezkuntza Taldearen parte da.

(1987, Buenos Aires) Javier Narducci Torti arkitektura ikasi zuen Buenos Airesko Unibertsitate Autonomoan (2012). Marrazketako eta eraikuntzako irakaslea da.

Duela 6 urtetik hona, artisautzan eta formatu didaktikoko liburu ilustratuen edizioan dihardute, eta, argitaletxearen bidez, ilustrazioari eta autoedizioari buruzko jaialdietan eta liburu-azoketan parte hartu dute, Argentinan, Uruguain, Espainian, Belgikan eta Italian.

Hainbat teknika erabiliz ilustratzen dute (esaterako, akuarelak, grafitoa, collagea eta brodatua), eta, gero, marrazkiak digitalizatzen dituzte. Edizioak zainduak dira, artisau-eran eginda baitaude: kamishibai antzerkiak; origami, pop-up, akordeoi eta karrusel itxurako liburuak; banderatxoak; horiek guztiak koadernaketa-ariketa desberdinekin konbinatuta (josturak, tolesturak, kolaketa).

(1988, Buenos Aires). Belén Catalano Gregoroff, artista plástica, graduada en Artes Visuales en Buenos Aires (2010), Master en Curaduría (2013) y parte del equipo de educación del Museo de arte de la Universidad Nacional de 3 de Febrero.

(1987, Buenos Aires). Javier Narducci Torti, arquitecto por la Universidad Autónoma de Buenos Aires (2012). Docente en materias de dibujo y construcción.

Desde hace 6 años se dedican a la artesanía y la edición de libros ilustrados con formato didáctico y han participado con su editorial en festivales dedicados a la ilustración, autoedición y ferias del libro en Argentina, Uruguay, España, Bélgica e Italia.

Ilustran utilizando distintas técnicas como acuarelas, grafito, collage, bordado y luego digitalizan los dibujos. Las ediciones son cuidadas ya que son artesanales: teatros kamishibai, libros origami, pop-up, acordeón, carrusel, banderines, combinadas con distintos ejercicios de encuadernación (costuras, pliegos, encolado).



## ARRATE RODRIGUEZ

## ARRATE RODRIGUEZ MARTÍN

HENDAIA, FRANCIA

WWW.ARRATERODRIGUEZ.BIGCARTEL.COM

(1984, Errenteria-Gipuzkoa). Artista eta ilustratzailea, Arte Ederretan lizentziatu zen UPV/EHUn (2007) eta ondoren Ilustrazio Kreatiboa ikasi zuen Bartzelonako Eina Escolan (2010). Freelance ilustratzaile gisa lan egin du 2006tik, lan hori beste batzuekin uztartuz, museoko gidaritzatik hasi eta diseinatzaile grafiko arte. Kartelgintzan egin du lan oso hasieratik, baita ere musikarien diskoak diseinatzen, liburu azalak eta baita beste mota batzuetako irudiak egiten produktu jakinentzat.

Bere lanak literaturarekin harreman estua dauka eta modu honetan irteera zuzena ematen dio maite dituen liburu edota irakurketei, burura datozkion irudiak forma eta kolore bihurtzen ditu eta honela “irakurketaren esperientzia luzatzeko” kapsu-la bat sortzen da, asmoa horixe da, posterra begiratuz liburu edo istorio hori gogoraraztea, filmen artelekin gertatzen den bezala.

(1984, Errenteria-Gipuzkoa). Artista e ilustradora, se licenció en Bellas Artes por la UPV/EHU (2007) y, posteriormente, estudió Ilustración Creativa en la Eina Escola de Barcelona (2010). Desde 2006, ha trabajado como ilustradora freelance, compaginando dicha labor con otras tareas, como son las de guía de museo o diseñadora gráfica. Desde el principio ha trabajado en la elaboración de carteles, así como en el diseño de discos para músicos, portadas de libros y otro tipo de imágenes para productos determinados.

Su trabajo guarda una estrecha relación con la literatura, de manera que da salida directa a aquellos libros o lecturas que le gustan, y da forma y color a aquellas imágenes que se le vienen a la cabeza, creando así una cápsula “para ampliar la experiencia de la lectura”. Esa es su intención, traer a la memoria ese libro o historia mediante la observación del póster, tal y como ocurre con los carteles de las películas.



## ORMIGOI

## AMAYA JIMÉNEZ MIGUELTORENA

PAMPLONA, NAVARRA

WWW.ORMIGOI.ETSY.COM

(1992, Mexiko). Ilustratzailea eta zeramikaria. Diseinu Industrialeko lizentzia (2015) eta Bitxigintza Garaikidearen Diseinuko graduondokoa (2018) egin zituen Mexiko Barruti Federalaren ERDIALDEKO Unibertsitatean.

2016an, Ormigoi sortu zen. Marka edo proiektu bat baino gehiago, Jiménezen emozioen eta haren adierazteko moduaren zatitxo bat da, oraingo Amayaren eta iraganekoaren arteko elkarrizketa bat. Babesleku bat da, eta, bertan, pertsonaiek, objektuek eta emozioek bizitza hartzen dute.

Bitarteko tradizionalak (esaterako, akuarela, gouachea eta akrilikoak) eta digitalak erabiltzen ditu. Zeramikari eta haren pigmentuei esker, beste dimentsio batzuetan murgiltzen da: bolumena duten piezen gainean marrazten du, edo ideiei eta marrazkiei bolumena ematen die. Bestalde, bitarteko digitalei lotuta, animazioa ere landu du.

Ormigoi azoka eta erakusketa kolektiboetan egon da Mexikon. Dendetarako piezak egin ditu, baita haurrentzako ipuinetarako azalak ere.

(1992, México). Ilustradora y ceramista. Licenciada en Diseño Industrial (2015) y con un Posgrado en Diseño de Joyería Contemporánea (2018) ambos por la Universidad CENTRO de México D.F.

En 2016 nace Ormigoi que, más que ser una marca o proyecto, es un pedacito de las emociones de Jiménez y la forma en que le gusta expresarse, un diálogo entre la Amaya del presente y del pasado. Es un refugio donde cobran vida personajes, objetos y emociones.

Trabaja desde medios tradicionales: acuarela, gouaché y acrílicos, hasta lo digital. La cerámica y sus pigmentos le permiten explorar otras dimensiones, desde el dibujo sobre piezas con volumen, hasta darle volumen a sus ideas y dibujos. Por otra parte, lo digital, le ha llevado a trabajar también con la animación.

Ormigoi ha estado en bazares, exposiciones y colectivos en México. Ha intervenido piezas para tiendas y hecho portadas para cuentos infantiles.



## A WRITHING THOUGHT (AWT)
## ÁLVARO CUBERO GONZÁLEZ

VALLADOLID

WWW.AWRITHINGTHOUGHT.COM/SHOP

(1989, Valladolid). Haren lanean musika eta ilustrazioa nahasten dira. Haren lana iluna eta organikoa da, eta xehetasun korapilatsuz beteta dago; hainbat taldetarako albumetan, horma-irudietan eta merch diseinuan ikus daiteke (esaterako, Bones of Minerva, Osopardo, Deriva, Sechem eta Soen), baita jaialdietan ere (adibidez, Resurrection Fest).

Cuberok Valladolideko Arte Eskolan ikasi zuen ilustrazioa (2012), eta, gero, Madrilen, Arte 10 eskolan, grabatuaren eta estanpazioaren teknika tradizionalak. Bertan, grafika inprimatuko hainbat teknika ikasi zituen, zeinek eragin handia izan baitzuten haren gaur egungo estilo artistikoan.

Marrazteko teknika tradizionalak erabiltzen ditu (tinta txinatarra, grafitoa...), eta teknika digitalekin uztartzen ditu, kolorea, testura eta elementu grafikoak gehitzeko. Musikan inspiratutako elementuak motibo naturalekin konbinatzen ditu; Alphonse Mucha, Richey Beckett, João Ruas (Feral Kid) eta beste artista batzuek inspiratuta ukitu surrealistak dituzten lerro fin eta estilizatuak dira.

(1989, Valladolid). La música y la ilustración se entremezclan en su obra. Su trabajo, oscuro, orgánico y con intrincados detalles, se puede ver en portadas de álbum, pósters y diseño de merch para bandas como Bones of Minerva, Osopardo, Deriva, Sechem, Soen y festivales como Resurrection Fest.

Cubero estudió ilustración en la Escuela de Arte de Valladolid (2012), y posteriormente en Madrid las Técnicas Tradicionales del Grabado y Estampación en la Escuela Arte 10. Allí aprendió varias técnicas de gráfica impresa que marcaron en gran medida su estilo artístico actual.

Utiliza técnicas tradicionales de dibujo (tinta china, grafito...) que complementa con técnicas digitales para añadir color, textura y elementos gráficos. Combina elementos inspirados por la música con motivos naturales, líneas fluidas y estilizadas con tintes surrealistas inspirado por artistas como Alphonse Mucha, Richey Beckett o João Ruas (Feral Kid).



## ALBERTO MURIEL
## ALBERTO MURIEL SÁNCHEZ

BILBAO — WWW.ALBERTOMURIELSHOP.ETSY.COM

(1978, Barakaldo). Arte Ederretan lizentziaduna (2002). Diseinatzaile grafiko gisa hasi zen lanean, baina, berehala, ilustrazioan jarri zuen arreta, eta, harekin batera, aldizkarietarako komiki-bandak eta komikiak argitaratu zituen AEBko argitaletxeetan, hala nola IDW publishing (G.I. Joe: Snake Eyes, The A-Team: War Stories, Legion), Kickstart comics (The Blacksmith, Heavy Water) eta Vault Comics (Ricardo Mo Colossi gidoigilearekin batera berak sortutako komikia). Komiki digitaleko proiektu pertsonalak ere egin ditu, hala nola Propeller (Comixology) eta Yes we Camp komiki-antologia (argitaletxea: Dibbuks).

Ilustrazioaren arloan, besteak beste komunikazio-agenteekin, elkarteekin, Bilboko Udalarekin eta Guggenheim Museoarekin egin du lan, eta, azken urteetan, kontaketa grafikoan eta ekitaldietako zuzeneko marrazketan espezializatu da.

Haren proiektu nagusia euskal hiriburuetako tokien ilustrazioak dira.

(1978, Barakaldo). Licenciado en Bellas Artes (2002), empezó su vida profesional como diseñador gráfico. Enseguida se centró en la ilustración, que compaginó publicando tiras cómicas para revistas y cómics en editoriales estadounidenses como IDW publishing (GI Joe: Snake Eyes, The A-team:war stories, Legion), Kickstart comics (The Blacksmith, Heavy Water) o Vault Comics con el cómic de creación propia junto al guionista Ricardo Mo, Colossi. Además de proyectos personales de cómic digital como Propeller en Comixology o la antología de cómic Yes we Camp publicada por Dibbuks editorial.

En el mundo de la ilustración, ha trabajado con clientes como agencias de comunicación, asociaciones, el ayuntamiento de Bilbao o el museo Guggenheim y en los últimos años se ha especializado en relatoría gráfica y realización de dibujo en vivo en eventos.

Su proyecto principal son ilustraciones sobre lugares de las capitales vascas.



## CARMEN B. MIKELARENA
## CARMEN BARRUECO MIKELARENA

GRANADA ÷ MADRID WWW.CARMENBMIKE.ETSY.COM

**BEKIKASLE, Mazoka-Laboral Kutxa bekaren irabazlea**
Granadako Unibertsitatea.

(1998, Madril). Arte Ederretan graduatu zen Unibertsitate Konplutentsearen eskutik (2020), eta Plymouthen eta Berlinen ere ikasi zuen. Komikia, ehun-artea eta pintura dira gehien erabiltzen dituen bitartekoetako batzuk.

Haren lanak zalantzan jartzen ditu cute dena, folklorea eta teknologia berrien erabilera, eta beka jaso duen E-ANIMAL proiektuak, bereziki, ehunetara eramaten du ilustrazioa, hariarekin margotzeko aukera ematen duen Tufting Gun tresnaren bidez. "Cute" denaren erabilera maltzurra da kontakizunaren haria. Hedonismo depresiboranzko ildo kritikoari jarraikiz, E-ANIMAL proiektuak zalantzan jartzen du gauza barregarriak egiten ari diren animalia maitagarrien bideoak jasotzeko etengabeko beharra.

Ihes egiteko kontsumitzen dugu eduki hori, edo behar bihurtzen da?", galdetzen dio ikasleak bere buruari, eta feltro gainean artilea erabiliz ilustratzen du, formatu erraldoian.

**Ganadora de la BECA Mazoka-Laboral Kutxa, BEKIKASLE**
Universidad de Granada.

(1998, Madrid). Graduada en Bellas Artes por la Universidad Complutense (2020), además de haber pasado parte de sus estudios en Plymouth (2018) y Berlín (2019). El cómic, el arte textil y la pintura son algunos de los medios con los que trabaja más a menudo.

Su trabajo cuestiona lo cute, el folklore y el uso de nuevas tecnologías y en particular el proyecto becado, E-ANIMAL, traslada la ilustración al ámbito textil, a través de la herramienta Tufting Gun, que permite pintar con hilo. El hilo narrativo es el uso perverso de "Lo cute", siguiendo una línea crítica hacia el hedonismo depresivo, E-ANIMAL cuestiona la necesidad constante de recibir videos de animales adorables haciendo cosas ridículas. "¿Consumimos este contenido para evadirnos o se convierte en una necesidad?" se pregunta la estudiante y resuelve a través de la producción ilustrada en lana sobre fieltro, formato gigante.




## LAIA LLEONART
## LAIA LLEONART I CRESPO

MASSARROJOS, VALENCIA

WWW.LAIALLEONART.COM/TIENDA

**Ikaslea,** Valentziako Unibertsitate Politeknikoa.
(1987, Valentzia). Lehenik, biolontxeloa ikasi zuen (2009), musika-ikasketetako erdi-mailako gradua (bere ibilbideko lehenengo amodio artistikoa); eta, gero, Arte Ederrak Valentziako Unibertsitate Politeknikoan (2017), Ekoizpen Artistikoko masterra: tipografoa aplikatuan aditua izateko programa (2020) eta prozesu artistikoetan aditua izateko programa (2021).

Lleonartek sortzen dituen unibertsoetan, literatura, musika eta eguneroko bizitzan inguratzen zaituzten xehetasun guztiak dira protagonista: pertsonaia bihurtu diren hiriak, hiri txiki bat osatzen duten eraikin literarioak... Horretarako, akuarelaren teknikak erabiltzen ditu nagusiki, hala nola gouachea, tinta eta pastelak; duela gutxi, ilustrazio digitalean ere murgildu da.

**Estudiante,** Universidad Politécnica de Valencia.
(1987, Valencia). Primero estudió violonchelo (2009), grado medio de Estudios Musicales (el primer amor artístico de su carrera) y después Bellas Artes en la Universidad Politécnica de Valencia (2017); Máster en Producción Artística: programa experto en Tipografía Aplicada (2020) y programa experto en Procesos Artísticos (2021).

Lleonart crea universos donde la literatura, la música y todos los pequeños detalles que te rodean en la cotidianidad son los protagonistas: ciudades que se han convertido en personajes, edificios literarios que forman una pequeña ciudad... usando principalmente la técnicas de la acuarela entre otras como gouache, tinta y pasteles, con una reciente incursión en la ilustración digital.



## MJ MORA
## MARÍA JOSÉ MORA ANAYA

BILBAO

WWW.MJMORA.COM/SHOP

**Ikaslea,** Euskal Herriko Unibertsitatea.
(1997, Huelva). Kultur Ondasunen Kontserbazioan eta Zaharberritzean graduatu zen Sevillako Unibertsitatean (2019), nahiz eta azken urtea Accademia di Belle Arti di Brera (Milan) akademian egin zuen; gero, Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak masterra egin zuen UPV/EHUn (2021). Bost urtez, marrazkian eta pinturan trebatu zen akademia pribatu batean, Ana Marina Hernández irakaslearekin.

Nahiz eta irudi figuratiboak soilik egiten hasi, gaur egun arreta abstrakzio piktorikoan jartzen du. Elementu errealista eta iragankor horiek identifikatu gabekoekin nahasten saiatzen da; adibidez ideien eta erreala denaren arteko objektuen artean. Akuarela, olioa eta teknika mistoa erabiltzen ditu erosoen.

Gaur egun, emakume artistak batxilergoko hezkuntza-curriculumean txertatzeko La Roldana plataformako ilustratzailea eta kolaboratzailea da.

**Estudiante,** Universidad del País Vasco.
(1997, Huelva). Graduada en Conservación y Restauración de Bienes Culturales en la Universidad de Sevilla (2019), realizando el último año en la Accademia di Belle Arti di Brera, Milán, y máster de Conservación y Exhibición de Arte Contemporáneo en la UPV/EHU (2021). Se formó en dibujo y pintura durante 5 años en una academia privada junto a la profesora Ana Marina Hernández.

Aunque su producción comenzó siendo puramente figurativa, actualmente encuentra en la abstracción pictórica el foco de su interés. Intenta mezclar estos elementos realistas y fugaces con aquellos no identificados como objetos del ideario y el plano de lo real. La acuarela, el óleo y la técnica mixta son las herramientas a través de las que se expresa con mayor comodidad.

A día de hoy, es ilustradora y colaboradora de la Plataforma La Roldana para la inclusión de las mujeres artistas en el currículo educativo de bachillerato.



## OLGA MOLLÀ
## OLGA MOLLÀ LLÀCER

VALENCIA

WWW.OLGAMOLLA.COM

**Ikaslea,** Valentziako Unibertsitate Politeknikoa.

(1998, Canals-Valentzia). Arte Ederretan graduatu zen (2021), eta ilustrazioko espezializazioaren diploma eskuratu zuen Universitat Politècnica de València unibertsitateko Diseinua eta Ilustrazioa masterrean.

Haren ilustrazioak eguneroko gaiei eta gizarte-alderdiei buruzkoak izan ohi dira, ironia inoiz alde batera utzi gabe. Collagea (kartoi meheak, koloretako arkatzak, transferentziak, gouachea...) erabiltzen du bere lanetan. Nagusiki Valentziako alderdi tradizionalak irudikatzen dituzte, kontzeptualizazioa erabilita (alegia, gai zailak erakusteko irudi bakar bat erabiltzea, jendea harekin identifika dadin).

Nagusiki lan pertsonalak egiten ditu, baina enkarguz ere ilustratu du; esaterako, Universitat de València unibertsitateko BEA ikasle-sindikatuarentzat.

**Estudiante,** Universidad Politécnica de Valencia.

(1998, Canals-Valencia). Graduada en Bellas Artes (2021) y con diploma en la especialización de Ilustración del Máster de Diseño e Ilustración de la Universitat Politécnica de València.

Sus ilustraciones suelen tratar temas cotidianos y aspectos sociales, siempre con un toque de ironía. Usa el collage (cartulinas, lápices de colores, transferencias, gouache..) en sus obras, que ilustran principalmente aspectos locales y tradicionales valencianos, utilizando la conceptualización para mostrar temas complejos en una sola imagen con la que la gente se identifique.

Desarrolla mayoritariamente su trabajo personal, pero también ha ilustrado por encargo para el sindicato estudiantil BEA de la Universitat de València.




## PAULIMILUSTRA
## PAULA MIRA COLOMER

ALCOY, ALICANTE

WWW.INSTAGRAM.COM/PAULIMILUSTRA

**Ikaslea,** Alcoiko Arte eta Diseinuko Goi Eskola.

(1991, Alcoi). Ilustrazioan trebatu zen, Alcoiko Arte eta Diseinuko Goi Eskolan; gaur egun, Ilustrazioko Goi Mailako 2. zikloa egiten ari da. Mira Colomerrek beti izan du gustuko teknikak eta komunikazio grafikoko modu berriak aztertzea (orri zuri bat, horma zahar bat...). Hala ere, gaur egun, teknika digitala erabiliz egiten ditu ilustrazioak.

“Melodramas ilustrados” zenbait ilustrazioz osatuta dago; ilustrazio horiek pandemia baino pixka bat lehenago sortu ziren, eta aldatuz joan ziren konfinamendu-garaian. Haietan, sentimendu pertsonalak, bizipenak eta fase emozionalak ditu hizpide. Ilustrazio guztiek esaldiak dituzte, eta esaldi horiek bidea zabaltzen diote ilustrazioei begira dagoenaren imajinazioari eta haren interpretazioari.

“Gaur egun, marraztuz deskribatzen dut mundua, eta marraztuz jartzen diot ahotsa sentitzen dudanari”.

**Estudiante,** Escuela de Arte y Superior de Diseño de Alcoi.

(1991, Alcoy). Formada en Ilustración en la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Alcoi, actualmente en el 2º Ciclo Superior en Ilustración. A Mira Colomer siempre le ha gustado explorar técnicas y nuevas formas de comunicación gráfica, “desde un papel en blanco hasta una pared vieja”. Aunque en la actualidad sus ilustraciones se desarrollan con técnica digital.

“Melodramas ilustrados” trata de una serie de ilustraciones que nacen poco antes de la pandemia y evolucionan durante el confinamiento. En ellas habla de sentimientos personales, vivencias y fases emocionales. Todas las ilustraciones están apoyadas con frases que dejan vía libre a la imaginación del que las mira y a su propia interpretación.

“Hoy dibujar es mi forma de describir el mundo y darle voz a lo que siento”.

## VII. MAZOKAKO KARTELAREN ILUSTRATZAILEA
## ILUSTRADORA DEL CARTEL VII EDICIÓN MAZOKA
## MAITE GURRUTXAGA OTAMENDI

**DONOSTIA**



(1983, Amezketa, Gipuzkoa). Gurrutxagak Arte Ederrak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Bartzelonako Unibertsitatean. Lizentziatu ondoren, Bartzelonan zegoela, ilustrazio ikasketak burutu zituen Escola de la Donan.

2008an hasi zen ilustratzen, eta ordutik, haur, gazte eta helduentzako liburuak ilustratzeko aukera izan du; baita beste euskarri batzuetan bere lanak argitaratzekoa ere, hala nola: kartelak, agendak, prentsa, kartak, app-ak edo muralak.

Urte hauetan bere lanak errekonozimendu desberdinak jaso ditu: Adibidez, 2014ko Euskadi Saria Literatura Obraren Ilustrazioan, Habiak komikiarengatik, edo Lazarillo Album Ilustratu Saria Alaine Agirrerekin batera, Martin lanarengatik. Bere lanak aukeratuak izan dira (2014, 2017 eta 2019an) Bratislavako Ilustrazio Biurtekoan edota Illustrating Life Beijing jaialdiko (2017 eta 2019an) erakusketetan parte hartzeko.

(1983, Amezketa, Gipuzkoa). Gurrutxaga estudió Bellas Artes en la Universidad del País Vasco y la Universidad de Barcelona. Después de licenciarse realizó estudios de ilustración en la Escola de la Dona de Barcelona.

Comenzó a ilustrar en 2008. Desde entonces, ha ilustrado libros para niños, jóvenes y adultos. También ha aplicado la ilustración a otros soportes como carteles, agendas, prensa, cartas, apps o murales.

En estos años su trabajo ha sido reconocido con diferentes premios, como el Premio Euskadi de Literatura en Ilustración de Obra Literaria por el cómic Habiak / Nidos en 2014; o en 2015, el Premio Lazarillo de Álbum Ilustrado por el proyecto Martín, con texto de Alaine Agirre. Su trabajo también ha sido seleccionado varias veces (2013, 2017 y 2019) para participar en la Bienal de Ilustración de Bratislava o el Illustrating life Beijing (2017 y 2019).

## LAGUNTZAREKIN / PATROCINADO POR:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

VITORIA GASTEIZ green capital

araba foru aldundia
álava diputación foral

LABORAL kutxa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## BABESLEAK / COLABORADORES:

montehermoso · elkar · GEORKA · Hotel centro Vitoria · sistemas ARCO IMPRESIÓN DIGITAL · bai · AIXO FASHION & DIGITAL SOLUTIONS

## MEDIA PARTNERS:

radio vitoria · AUX magazine · Noticias de Álava Diario · UN PERIODISTA EN EL BOLSILLO · NOIZ · ALEA